

Errotarriak

HASIER ETXEBERRIA



GOGORATZEN

al zarete Gora Euskadi Askatuta hartatik nota sortu zen Gora Euskadi Independentea hura? Askatua hitzak librea, esan nahi zuenez,

ordura arte sekula abertzale izan gabekoak ere hasi ziren eslogana erabiltzen. Indar zehatzik gabe geratu zen Askatuta hitza, huts-hutsik. Kontzeptua indargabetzetik, esanahia dispersatetik etorri zen berandua-goko Independentzia berba.

Gauza bera gertatuko zaio aurki Nazioa hitzari ere. Laster beste bat asmatu beharko da Euskal Herriren naziotasuna adierazi nahi denarako. Alde batetik, gaur bertan, nazionalista eta abertzale hitzak ez dira gauza berbera. Nazionalistak, batzutan bai eta bestetan ez, agertzen dira autodeterminazioa, independentzia eta halako kontzeptuen alde eta kontra. Aldi berean, badirudi abertzale adjektiboa merezi duenak argi dituela termino beroriek eta beti agertzen dela beraien alde.

Beste alde batetik, Pello Arrizabalaga eta gainerantzeko Euskadiko Ezkerrekoak hasi zaizkigu orain, Nazio hitza balio gabetu nahian. PSOEekin burutu behar duten ez-kontza iragarri hori dela eta, burutu omen dute dagoeneko batak besteari eman beharreko dotea. Berorren ondorioz, nazionaltasuna aitortuko omen diote sozialistek Euskal Herriari. «La resolución del hecho nacional» vasco onartu omen dute. Banderen eraginaz izango zen, alajainkoa!

Hauetako egunen batean hasiko zaizkigu sozialistak beraiak ere nazionalistak direla esaten. Akaso abertzaleak direla esaten ere ausartuko dira. Kukua txorrotxioka ezintzea tokatuko zaigu aurki, eta errotarriak irentsi baino lehen, has dadila euskaltzainen bat Nazio eta Aberrri hitzen ordezkoen bat topatzen, lehenbailehen.

Mirespena nahi

TXILLARDEGI



ZIFRAK hor dauke. Lendacariak 952.400 pezetan irabaziko ditu orain hilabeteko (gehi 'diatak', jakina). Jaurleri agurgarriek, 840.000 milaean (Buesak eta Atulean, adibidez).

Jaurleri-ordeek 765.000 milaean. Zuzendariak 620.000. Buesaren txoferrak 378.000 hilean... Ez, ez: ez da Eguberriko zozketa famatua. Baskongadetako soldata-ilara besterik ez da. Trapagarren gehigarriak ez dira hor agertzen; eta Ardanzaren kotxeak balio dituen 51 kiloko ere ez.

Nola nahi duzue buruzagi horiek 'marko juridikoaren aldaketa' bultzatzea? Abertzale sutsuak balira, agian. Baina Madrileren morroin leial eta otzan bihurturik, nondik nora soldata horiek arriskatuko?

Dagoen ekonomi-kinka txarrean, zuhurtzia apur bat espero zitekeen sozialistengandik. Baina 'psozzialistak' besterik dira. Eta burdinaren marxita hitsaren biharanonen, beren soldatak jasotzeko lotsarik ez dute izan.

Jesus Nazareth-ekoa dela-ta, lotsa apur bat espero bide zitekeen 'kristaua' omen den alderdiko lagunengandik. Arzalluzen dizipuluck, ordea, barre egiten diote Nazarenoari.

Prestutasunez bederen, kontu piska bat izatea espero bide zitekeen. Sozialismotik at eta kristautasunetik at, prestutasuna ba-omen dago. Ezta ere!

Zentzuaz, beraz? Gure metalgintzaren desagerketa abiatu denean, ez da zentzuzkoa bizkaitar horietaz trufatzea. Ez, ba!

Gure agintariek, 'passo' egiten digute denoi. Eta gainera errespetua, aire mirespena ere, nahi lukete gugandik...

Baina horretan bederen jai dute. Eta lotsatu egiten gaituztela adierazten dugu argi-eta-garbi. Hori behintzat, garbi.

DEIA

Greba zibilizatu batzuen alde

Parlamentuko Talde Sozialistako eta UGT eta Comisiones Obreras sindikatuak ordezkaritzek adostasun bat lortu dute Greba Lege proiektuaren idazketan, eta hori dagoeneko tramitatzeko ari da Parlamentuan.

Testu berria jendaurrera ateratzen den bitartean —hori idatzi dutenen arabera gutxienezko zerbitzuei buruzko aldeko aurreko negoziazioaren inguruko da, nahiz eta botere publikoek azken batean funtsezko zerbitzuen funtzionamendua garrantzitzeko ahalmena izango duten—, adostasuna oso aurrerapen handia da lan harremanak normaltzeko bidean.

Denok zoriontzeko moduko gauza da, nahiz eta nahigo gabe gureko Gobernuari eusten dion alderdiaren eta estatu mailan gehiengoak duten bi sindikatuaren arteko adostasun horretara eremu honetan eragin nabarmena duten beste hainbat erakunde gonbidatuak izan balira, patro-

HEMEROTEKA



EL MUNDO

ZULETI/DIARIO VASCO

Burua galdu

Hamarkada loriatua dela medio antolatutako ospakizunen artean, Boyerren etxearekin batera, PSOEko presidentek Senatu eta Gorteetako presidenti Filesa aferaz igorritako eskutitza nabarmentzen da. Ez da nahikoa PSOErentzat Kontu Auzitegia eta Estatuko Fiskaltzari ospea kendu izana, are Konstituzionalaren izen ona murriztu izana ere. Orain, Le-

gislatiboa nabarmen utzi nahi du eta, ahal bada, Judizialaren kontra jarri. PSOEek burua eta eskrupuluak galdu ditu. Idazkari nagusiak esana zuen lehenago ere ez zela GALEkiko zerikusia frogaz ezazek inolako daturik aurkituko. Lehendakariordeari berdin dio: horrelakorik egonez gero, Exekutiboak beste botereak deusezta ditzake, eta kitto; horretarako bai balio duela Montesquieuk. Espero dezagun hau laster amaitzea.

ANTONIO GALA

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Hirugarren Munduari Elkartasuna

Beheran sinatzen dugunok, herri honetako bizilagunak, Hirugarren Munduko egoeraz arduraturik, sufrizten dituzten gaitzen ezagutzailak izanik eta gure eta beraien arteko ongizatearen desoreka berdin du nahian, bilkura osoari azaltzen diegu:

a) Ipar ekonomikoak, Euskadi barruan delarik eta munduko biztanleko ehunetik 20 besterik ez izanik, errekurtso ludiko eta produktibotik ehunetik 80 kontsumitzen duela.

b) Hirugarren Munduko egoerak bizi duen larritasunak irtenbide bat eskatzen du. Hau dela eta NBEk gure eta beraien arteko tartea gerturatzeko erakundeek beren BNGko ehunetik 0,7 aurrerabiderako laguntzetarako eman dezala eskatzen diegu.

c) Eusko Jaurlitzak aurrera egin du bere aurrekontuetan hau ezarriaz, udaletxe eta foru aldundiei berdin egin dezatela eskatuz.

d) Dagoen krisialdia kontuan izanik, Tolosa eta bailarari kopuru honek ez diola zama handirik suposatuko udaletxeko kutxei, ezta zer-gaemala bizilagunei ere.

Eskatzen dugu: 1.) Herrietako Solidaritzarako aurrekontu

- 2.) Aurrekontu honen kopurua udaletxean sartzen diren ehunetik 0,7 izango litzateke.
- 3.) Ongizateko Batzordea izango litzateke honen banaketaren arduraduna.
- 4.) Dirulaguntzaz aurrera atera beharko diren proiektuen gestioa, ahal ezkerre, aurrerabide laguntzarako GKEK (Gobernuz Kanpoko Erakundeak) egingo dute.
- 5.) Kopuru horretatik larrialdietarako kopuru bat gordeko da.

Etia hau bultzatzeko sinadurak jasoz proposatzen dugu:

KOMITE INTERNAZIONALISTAK
ASKAPENA
'OSKAR ROMERO' BATZORDEA
TOLOSA BAILARAKO MIXIO TALDEA

Lumazko erráztoa ala eskabadora?

Azkenaldi honetan, ia astero, bada PSOE ez bada UA, funtzionarien ezintasunagatik,

cuskararen mailak jeistea eskatzen duenik. Hauen artean Ignacio Latierra jaunak esandakoak. Zer gertatzen da da hainbeste min ematen dien gure hizkuntzarekin?

Honen aurrean euskaldunok ez ote gabilza geure pittintxoak defenditu nahian eta aurreratzaren ari gara erakutsi nahian? Hala antzematen zaio Hizkuntz Politikarako Idazkari-tzari; nonbait loretxoren bat azaltzen bada hauxe gorapaitu, huraxe puztu eta huraxe mirestu egiten bait du. Nire ustez euskarak jasaten duen eraso handiegia da loretxo pittin horiek miretsiz eta inori minik eman gabe, euskara aurrera doala esanez egoteko. Gu lumazko erraztoaz, kontuz eta inori minik eman gabe ari gara eta, erasoak eskabadoraz egiten dituge.

Honela jarraitu behar al dugu Euskal Herriari hainbeste diren euskararen aldeko mugimenduekin kontaktuz, berreuskaizuntzeko plan serio bat egin eta martxan jarri gabe?

Guk ere, beti erasoak jasaten eta defentsiban egon gabe, erasoan hasi behar dugula uste dut. Euskal Herriko hizkuntza aurrera ateratzeko eskubide osoa eta obligazioa bait dugu.

M.A.
Arrasate (Gipuzkoa)


GAIA JARRITA



Europako Hizkuntza Minorizatuen Agiria

Garrantzitsuak hainbat Itun ta Agiri, eta Frantziak berriaz orain ere ziri. Tikiak ta halere nahi badugu segi, hizkuntzari kontu hor: mintza ta eskribi. Geroa gure dela iduritzen niri.

MIKEL TABERNA 'KAPI'



Batzorde Parekidua: 72564 E / Lege Goidialua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: FERMIN LAZKANO
Zuzendaria: IÑAKI URÍA
Zuzendariordea: LUZIEN ETXEZAHARRETA
Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA
Sustapena: NEREA AZURMENDI
Publizitate: KORNELIO ROTETA
HELBIDEAK
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Publioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Arabak: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroak: Iraitx Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoak: 503 Posta kutxatila / 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11